

GURASOENDAKO ALDIZKARIA aurrera begira

13. ALEA 2007ko Iraila



Begarako Udal arxiboa. Juan Idigoras fondoa 1.983/9/15



GURASOENDAKO ALDIZKARIA

aurrera begira

Laguntzaileak:

- Bergarako Udal Euskara Zerbitzua
- Bergarako Udal Artxiboa
- Bergarako Udaleko Hezitzailea
- Bergarako Udal Kirol Zerbitzua
- Kale hezitzaileak
- Aranzadi ikastola
- Mariaren Lagundia ikastola
- San Martín ikastola
- Ipintza institutua
- Berrigara
- Lea Artibaiko Amankomunazgoa
- Jardun Euskera Elkartea
- Xipizaro Ludoteka

Maketazio eta inpresioa: KOH diseinu grafikoa
eta inpresio digitala

Egilea: Bergarako Udala
Gizarte Ongizateko
Prebentziorako zerbitzua
San Martín Agirre plaza, 1
20570 Bergara
Tlf: 943779126 • Faxa: 943779182
E-maila: aloidi@bergara.net

aurkibidea:

4-5 orrialdeak: 0-5 urtera
**“HERRIKO PLAZA,
ELKARGUNE ETA BEREIZ-GUNE”**
MUKO HUHEZIKO Hazitegi Proiektuko taldea

6-7 orrialdeak: 6-11 urtera
SEME-ALABEN HEZIKETA
AFEKTIBO ETA SEXUALA
Pepa Bojo
Psikologoa, psikoterapeuta
eta sexualitate-monitorea

8-9 orrialdeak: GURASOEN GALDERAK
Jose Ramon Fernandez
Psikologoa

10-11 orrialdeak: 12-18 urtera
FAMILIAREN GARRANTZIA
NERABEZAROAN ERE
Olatz Zubia Arana
Psikologo eta psikoterapeuta



Jardun

Babesleak:



Begarako Udala

SARRERA

Familiei seme-alabak hazten eta hezten laguntzeko zerbitzua



Enrique Aranz Freijo doktorea
Fernando Olabarrieta Artetxe jauna
UPV/EHU

Ainhoa Manzano Fernández doktorea
Juan Luis Martín Ayala doktorea
Etxadi

Bergarako Udaleko Osasun, Enplegu eta Gizarte Ongizate Sailak "Familiei seme-alabak hazten eta hezten laguntzeko zerbitzua" jarriko du martxan 2007ko irailetik aurrera. Zerbitzu horrek Bergarako familiei lagunduko die 0 eta 19 urte arteko euren seme-alaben hazkunde pertsonala nahiz familiarekin duten harremana hobetzen. Horrela, haurtzaroan eta nerabezaroan hainbat arazo gertatzea ekidin nahi da.

Horretarako, Udalak doako aholkularitza zerbitzu pertsonalizatu eta konfidentziala jarriko du bergararren esku. Zerbitzu hau Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultatek eskaintzen da, Etxadi taldearen bidez.

Zer eska dezakete familiek zerbitzu horretan?

- Guraso eta seme-alaben arteko harremanak hobetzeko informazioa.
- Seme-alaben garapen pertsonala sustatzeko orientazioa.
- Jarduera estrategiak, familian gertatzen diren heziketari buruzko zalantzak argitze aldera.

Zerbitzu hau nola erabiltzen da?

Familiek gure ZERBITZURA jo dezakete euren seme-alaben heziketari buruzko edozein galdera egiteko. Bi bide dituzte horretarako:

1. Telefonoz.

Ostegunetan, 11:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 17:00etara 94.405.15.49 zenbakira hots eginez.

Zuen deiaren zergatia eta familiaren datu espezifikoak eskatuko zaizkizue. Orduantxe jakinaraziko dizuete berandu gabe erantzuna jasoko duzuela hautaturiko moduan (telefonoz, posta elektronikoz edo posta arruntaz).

2. Posta elektronikoz:

a. Familiek Bergarako Udaleko web orrira jo dezakete. Bertan Etxadi taldearen webgunerako esteka aurkituko dute.

b. Behin Etxadi taldearen web orrian, erabiltzaileak Familientzako formularioa aukera hautatzen du, eta bertan eskatzen diren esparruak bete eta bere kontsulta egiten.

c. Familiek hartu izanaren adierazpena jasoko dute. Horren bidez, Etxadikoek euren kontsulta jaso dutela eta berandu gabe erantzuna jasoko dutela jakinarazten diete.

d. Aipatutako erantzunean kasu bakoitzarentzako orientazio zehatzak eskainiko dira, programa zehatzen bidez, baita bibliografia edo beharren arabera orientazioa ere.

3. Posta arruntaz.

Zure galdera idatzi eta honako helbidera bidal dezakezu:

Etxadi.

Máximo Aguirre kalea, 18 (Bis) 5. solairua, 10. departamentua
48011 Bilbo

Familientzako laguntza zerbitzua, beraz, prebentziorako eta heziketarako instrumentua da. Hori dela eta, zerbitzuaren xedea haurtzaroan eta nerabezaroan garapen pertsonal osasuntsua lortzen laguntzea da, baita elkarbizitza baketsuaren alde nahiz oinarrizko giza eskubi-deekiko errespetuaren alde hezten laguntzea ere.



FAMILIENTZAKO ORIENTAZIO PSIKOLOGIKORAKO ZERBITZUA



Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentron
Centro Universitario de Psicología de la Familia

 Bergarako Udala


Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

aurrera begira

Otik 5 urtera



Muko HUHEZIKo Hazitegi Proiektuko taldea.

Rafael Cristobal (HUHEZIKo ikertzailea), Iñaki Larrea (HUHEZIKo ikertzailea), Elena Lopez de Arana (HUHEZIKo ikertzailea), Arantxa Lejarreta (Arizmendi Kastolako ordezkaria), Gotzone Duñabeitia (Ikastolen Elkarteko ordezkaria) eta Alexander Barandiaran (HUHEZIKo irakaslea).

“HERRIKO PLAZA, ELKARGUNE ETA BEREIZ-GUNE”

Gaur egun, oraindik, herri txiki eta ertainetan pertsonak plazetan eta parkeetan elkartzen dira. Bertan hainbat gurasok eta beraien seme-alabek elkarrekin topo egiten dute. Handiagoak diren umeak beste leku batzuetan biltzen dira. Guk idazki honetan 6 urtera bitarteko haur eta familiei buruz hitz egingo dugu.

Adin tarte horretan jada umeen arteko jokabide sozial gehienak agertu dira: adiskidetasuna, norgehiagoka, hierarkiak, agresioak eta mehatxuak. Maitasun istorio txikiak ere bai, batzuetan. Adin tarte horretan indar handiz garatzen dira jokabide sozial horiek. Ume batzuek lider izaera izango dute eta, erakartzeko gaitasuna dutenez, beste ume batzuk beraien atzetik eramango dituzte, hainbat jolas proposatuz, ekintzak bideratuz... Beste ume batzuek aldiz, beraien agintea inposatuko dute, eta beraien arauak

betetzen ez dituztenen aurka egingo dute. Hortaz, beldurraren eta mehatxuen bidez gainontzekoak menperatu egingo dituzte eta, ondorioz, menpeko taldeak sortuko dituzte. Talde horrek beraien jarraitzaileak ez direnak baztertu egingo ditu.

Beste ume batzuek hierarkia maila baxuagoetan kokatuko dute beraien burua. Ume horietariko batzuk bakezaleak dira eta buruzagien ekimenak begi onez hartuko dituzte. Aitzitik, beste batzuk indarkeriaren beldur izango dira eta buruzagien beldur direlako jarraituko diete. Badaude oso lotsatiak diren umeak, isolatu egiten direnak eta taldeko jolasetan parte hartzen ez dutenak. Ikusten denez, oso ume desberdinak aurki ditzakegu gure herrietako plaza eta parkeetan.

Plaza eta parke horiek elkarrekin-tza sozialerako gune interesgarriak

izaten dira. Ume bakoitzak hainbat jarrera sozial garatuko ditu eta, hierarkian hartzen duen tokia- ren arabera, elkarrekin-tza bake- tsuen eta indarkeriaren dinamiken arabera, estrategia ugari ikasiko ditu.

Adin horietan, estrategia horien ikas- kuntza eta integrazio soziala jolas- aren bidez gauzatuko da. Jolas batzuk fisikoak izango dira eta umeen garapen psikomotorea garatzeko lagun- garriak izango dira. Beste batzuk, aldiz, rol jolasak izango dira eta beraien bizitza, beharrak eta erreali- tatea sinbolizatzen aproposak izan- go dira.

Jolasa esplorazioaren unea eta tokia da. Jolas motorearen bidez umeak espazio berriak eta bere gai- tasunak esploratuko ditu. Gainera, jolasaren bidez bizitzen ari den ego- era sozialak esploratuko ditu.

Jardun



Horrela, bere garapen kognitiboa eraikitzen joango da. Jolasen bidez umeak bere buruaren eta ingurune fisiko eta sozialaren inguruko informazioa bilduko du. Esfortzurik gabe, modu gozagarrian, informazio hori guztia bere memorian kokatuko du.

Aipatutako hori guztia kontuan izanda, plaza eta parkea oso leku interesgarriak dira herriko guneak diseinatzen dituztenentzat. Antzina, plaza artisauen lantokien erdian kokatzen zen; arotzak, larruginak, olagizonak, tindatzaileak,...plazaren inguruan zituzten beraien tailerrak. Plaza eskailera eta zuhaitzez betetako nolabaiteko egitura bertikalez beteta izaten zen, eta bertan umeek beren gaitasun motoreak martxan jartzen zituzten, jolas sinbolikoan aritzen ziren eta imitazioz, ondoan zituzten artisauren lanbideen hastapenetan sartzen ziren. Gaur egun aldiz, plaza krisian dugu, lanbideak kanporatu egin ditugu eta espazio publikoa murriztu.

Nahiz eta plaza eta parkeen ezaugarriak aldatu, testuinguru horietan umeak ezbeharren bat izateko beldurra mantentzen da; izan ere, heldu asko beldur izaten baitira abertsak diren jolasetan min hartzeko arriskuaz, gauza berrien aurrean izutzeaz edo eraso jasotzeaz. Horregatik, kontuan izan behar da, hain zuzen ere, helduak ere bertan daudela; azken batean, gurasoak, aiton-amonak edo umea zaintzen duten pertsonak bertan daudela. Hain zuzen ere, egoera ideal batean, helduek ume guztien kargu hartzea komeniko litzateke, beraien umeena barne, horrela, euren ardurapean egongo litzateke ume horiei une deserosoetan aurre egiten laguntzea, berriz ere jolaserako irrikan jar daitezten.

Ondo integratutako gizarte tradizionaletan, helduak umeen erreferentzia puntu dira. Talde soziala eta familia ume guztien altxorra dira, eta beraiengana jotzen dute behar izanez gero, norberarenak direnek lehenasuna badute ere. Gure gizartean ere gauza bera gertatzen da, neurri batean nahiko tradizionalak izaten jarraitzen dutelako. Kasu horretan elkarren senitarteko eta beraien lagunekin osatutako taldeak ume guztien ardura hartzen dute.

Hartara, umeek, beraien esplorazio fisiko eta sinbolikoa egiterakoan heldu horien babesaren sentitzen dute, badakite hori dituztela eta horrek beraien garapena bultzatzen du.

Une ez hain gozagarriak aipatu direla, garrantzitsua da beste faktore bat aipatzea; izan ere, lehenengo gizarteek bazuten ezaugarri garrantzitsu bat, hots, denek partekatzen zutelara arau moral eta sozial bera. Hezkuntzarako irizpideak berdintsuak ziren eta umeek jokatzeko kode komunak ikasten zituzten, helduen zaintzapean zeuden bitartean. Modu horretan, herriko plaza ume eta helduen integrazioarako gune bihurtzen zen, kohesio sozial eta kulturalerako ezin aproposagoa.

Helduen artean beti izan da lehia, beti izan da bekaizkeria edo inbidia, gure artean gaizki esaka ibili gara eta gezur beltz ugari erabili izan dira, mespretxu ugari, hierarkien borroketako tresna gisa. Baina aipatu ditugun kode moral eta sozialek irrika horiek baretzen zituzten eta ez zitzaizkien umei iristen. Gaur egun, aldiz, hain arin doazen aldaketa sozial eta kulturek bide horretatik aldendu gaituzte. Moral erlijiosoa ez da erreferentzia eta lotura sozialak gero eta zailagoak dira eraikitzeko. Egoera horretan gurasoen arteko lehiakortasunak berebiziko indarra hartzen du eta gatazka iturri garrantzitsua bihurtzen daiteke.

Lehia eskolara eta plazara edota parkera bideratzen da. Guraso bakoitzak nahi du bere seme-alaba lehena izatea, onena, umeen arteko borroketan garailea, ez dadila menperatua izan, irabazle izan dadila. Ez dute begi onez ikusten beraien umea beste baten "menpe", beste batzuen esanetara egotea. "Ez utzi jotzen", "zuk irabazi", "eskolan onena izan, baita jolasean ere" moduko mezuak bidaltzen dizkiegu oharkabeen sarri.

Testuinguru horretan, plaza gurasoen arteko "bereiz-gunea" bihurtzen da, presio-gunea. Umeek presio hori sumatzen dute eta ahulago sentitzen dira, askatasun gabeak beren bide propioak martxan jartzeko, arriskatzeko, hierarkian mugitzen ikasteko. Heldua segurtasun-iturri izatetik presio-iturri izatera pasatzen da.

Mundua aldatzen ari da, gizartea aldatzen ari da eta familiek aipatu dugun umeen dinamika soziala eza-gutu behar dute, umeen artean gertatzen diren makina bat gauza ulertu ahal izateko eta EZ kezkatzeko, hezkuntza irizpide mugatzaileak abian ez jartzeko.

Gaur egun inoiz baino gehiago guraso izaten ikasi beharra dago.

En este artículo de opinión, el grupo Hazitegi de la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación realiza una sencilla reflexión sobre las relaciones que se dan entre padres e hijos en las plazas y parques de nuestros pueblos. Es sabido que en dichos contextos tienen lugar diversas situaciones, algunas de ellas conflictivas, pero que resultan en todo momento enriquecedoras. Son conflictivas porque en las interrelaciones que se dan entre los niños tienen lugar incomprendimientos, amenazas y agresiones y, en esas situaciones, se generan conflictos también entre los padres, al quedar al descubierto la falta de acuerdo que existe entre ellos. Pero, al mismo tiempo, también resultan enriquecedoras, ya que se desarrollan las relaciones entre los niños y, cuando los adultos congenian, se desarrolla el espíritu comunitario, lo que asegura en bienestar de los niños. Nuestro propósito no es otro que presentar los elementos que ayudan a comprender tales circunstancias y, al mismo tiempo, proponer alternativas para convertir los puntos de desencuentro en puntos de encuentro. Primero hay que entender el comportamiento de los niños, para después llegar a un punto de vista educativo común. Ser padre pasa de ser el comportamiento natural que era antes a algo que debemos aprender de una u otra forma. Ese es nuestro reto.



Pepa Bojo

Psikologoa, psikoterapeuta
eta sexualitate-monitorea

SEME-ALABEN HEZIKETA AFEKTIBO ETA SEXUALA

Sexualitatea izaki bizidunen dimentsio bat bizitzeko modua da. Dimentsio horrek plazerrarekin du zerikusia eta, sarritan, beste pertsona batekin intimitatean topo egitearekin ere. Alor horretan hainbat alderdi uztartzen dira: gure sexua, gorputza, kontu biologikoak, emozioak, afektuak, zentzuak, pentsamenduak.

Jaioberriak munduarekin lehen kontaktua duen unean bertan hasten da sexualitatea eratzeo prozesua: gurasoen gorputzarekin harremanetan egotean, behar biologikoak izatearen poza sentitzean eta plazerra ematen dioten hainbat sententzio bizitzean (titia hartzea, laztandua izatea, soinuak entzutea...).

Sexualitateari buruzko kontuak ikasten hasten gara, familian gertatzen diren hainbat kontakturen bidez: familiako kideek haurraren duten jarrera, kideek zer egiten duten, gurasoek sexualitatea nola bizi duten, afektua nola adierazten duten, plazerra nola bizi duten, rola, emozioak nola bideratzen dituzten, eta abar. Horrela, mundu afektibo eta sexuala adierazteko arauak eta moduak imitatu eta barneratzen ditugu. Era

berean, mundu hori nola bizi eta zer adierazi eta egin dezakegun eta zer ez ikasten goaz. Kultur balio eta errolek zehazten dute hori guztia.

Ondorioz, garapen fisiologiko-hormonalaren sasoi ebolutiboak biziz, gure dimentsio sexual eta afektiboa eratu egiten da.

ETAPA AFEKTIBO-SEXUALAK

Haurra, 6 urte bete arte, bere gorputza eta ingurukoena ezagutzen aritu da (bere burua ukitu, begiratu, besteak ukitu...). Bi sexuen arteko aldeak antzeman ditu eta, hiru urte inguru dituenean, sexu bakoitzari dagoz-kion rola imitatu eta bere identitatea indartzen du.

6-9 urte

Mundua eta munduan gertatzen diren fenomenoak ezagutu eta jakiteko interesa pizten da. Haurraren identifikazio sexuala finkatzen da. Neska edo mutil izatea etengabe baieztatzen dute. Mutilak mutilekin eta neskek neskekin ibiltzen dira.

Sexuari dagokionean, gorputza, organoak eta ugalketa (haurrak nondik datozen) ezagutzeko interesa agertzen dute. Sexu bereko edo beste sexuko haurrekin jolas sexualak gertatzen dira (elkar ukitu, begiratu), eta euren gorputzak ezagutzen dituzte. Noizean behin masturbatu egiten dira, txiki-txikitatik era natural horretan erlaxatzen ikasi baitute.

Etapa horretan, familiak eta gizarteak sexu bakoitzari buruz aurkezten dizkieten balioek eta rolek berebiziko eragina dute. Une garrantzitsu horretan, beraz, sexuen arteko zuzentasunaren aldeko jokabide eta jarreratan hezi beharra dago. Horretarako, rol malguak eta partekatutak erakutsi behar ditugu.

Haurrei ugalketari buruzko oinarrizko kontzeptuak irakatsi behar dizkiegu. Hasteko, haurrek zer ulertzen duten eta zer dakiten aztertu behar dugu. Ondoren, zalantzak, mitoak edo nahasteak argitu behar ditugu eta, pixkanaka-pixkanaka, pribatutasunaren esanahia azaldu.

9-12 urte. Nerabezaroa

9 urtetik aurrera aldaketa garrantzitsuak gertatzen dira: nerabezaroan sexu organoak heltzen hasten dira, etorkizunean bizitza sexuala eta ugalketa erregulatuko duten hormonak produzitzen hasten dira. Aipatu hormonek, halaber, bigarren mailako ezaugarri sexualak garatzen dituzte.

Haurren gorputza hazi, zabaldu eta itxuraz aldatzen da; euren organo genitalak guztiz garatzen dira; pubisean eta besapeetan ilea ateratzen zaie eta, mutilen kasuan, baita aurpegian eta gorputz osoan ere; azala eta ilea koipetsuago bihurtzen dira, aknea agertzen da; ahotsa aldatzen da. Neskek lehen hilekoak izaten dituzte eta bularrak hazten zaizkie. Mutilek, aldiz, gaueko poluzioak izaten dituzte, non semena isurtzen duten, eta erektioaren moduko sententzio biziak sentitzen dituzte genitalatan.

Jardun



Aldaketa horiek, beti atseginak ez diren sentazio berriak ekartzen dituzte. Gorputza kezka, interes, larritasun, konplexu,... iturri izaten hasten da. Euren irudi berria onartu behar dute, eta ezarritako kanonekin eta lagunekin alderatuko du.

Neska-mutilak elkarren bila dabilta eta elkar saihesten dute. Sexualitatea biziagoa bihurtzen da (ametsak, fantasiak, desioak...), eta sarriago masturbatzen dira. Sexu identitatea indartzen da, zenbaitetan estereotipo irmoei atxikita.

Afektuaren aldetik, halaber, aldaketa bat gertatzen da: etapa horretan gurasoengandiko independentzia izateko nahia eta lehenengo matxinadak gertatzen dira. Adiskidetasunak lehentasunezko eta oinarrizko balioa hartzen du.

Garai horretan, jasango dituzten aldaketak aurrez azaldu behar dizkiegu, afektu eta sexu harremanei buruz lasai hitz egin behar diegu, baita ugaltzeko gaitasunari, higienari eta sexu osasunari buruz ere. Era berean, sexu jardueren gaineko erantzukizunak ezagutu eta euren gain hartu behar dituztela jakinarazi behar diegu. Era berean, apurka-apurka, nahigabeko haurdunaldiak eta antisorgailuak erabiltzeko aukerari buruz hitz egin behar diegu.

Autoestimua sustatzea oso garrantzitsua da, baita nork bere gorputza onartzea, asertibitatea eta, oro har, gizarte gaitasunak suspertzea ere. Hezkuntza emozionalak, halaber, berebiziko garrantzia du, sentimendu bizi berriak ezagutuko baitituzte, eta egoki erabiltzen ikasi beharko dituzte. Hona hemen sentimendu horietako batzuk: adiskidetasuna (norbaitekin egoteko desio indartsua), jelsiak, maitasuna, eta baita frustrazioa eta desengainua ere.

NOLA HEZI

Gurasoek seme-alabekin sexualitateari buruz hitz egin nahi dutenean, ezinegona sentitu dezakete, ez baitakite zer eta nola esan. Hasieratik, segurtasun falta dago. Ez dugu asmatzen gaiari buruz nola eta noiz hitz egin, eta hainbat alderdi jartzen ditugu zalantzan: norberaren

ezagutza, ezagutza horren egiatasuna, zenbat informazio eskaini, zer datu diren beharrezkoak eta zeintzuk ez. Horrez gain, gure seme-alabak inoiz nahikoa nagusi ez direla uste dugu. Ondorioz, zaila da jakitea zer adinetan hitz egin behar diegun sexuari buruz.

Beldur pertsonalen ondorioz, ez gara ausartzen seme-alabekin sexuari buruz hitz egitera, ez garela eroso sentitzen. Hori onartzea ona da, ezta ez dugu kezkatu behar erantzun guztiak ez badakizkigu. Garrantzitsuena galdera ez ezeztatzea da. Are gehiago, informazioa elkarrekin bilatu dezakezue, liburuetan begiratu edo osasun nahiz hezkuntza alorreko profesional bati galdetu diezaioketue.

Normalean, komunikazio ona badago, gai guztiei buruz lasai asko hitz egin eta ikuspuntu guztiak entzuten badira, sexualitateaz hitz egiteko konfiantza ere izango duzue.

Familian, heziketa sexualaren bidez, hainbat alorri buruzko informazioa eskaini behar da: gure gorputzari, harremanei, haurdunaldiari, haurdun ez gelditzeko moduei, sexu osasunari,... buruzkoa. Era berean, hainbat alderditan oinarritutako jarrerak eta balioak landu behar dira: harremanetan, afektuetan, intimitatean, generoan (berdintasunean hezi, sexu rolen mugetatik kanpo), maitasunaren ideian (maitasuna-pasioa, maitasuna-menpekotasuna...). Alderdi emozionala ere landu behar dugu, emozioak euren gain hartzen, ulertzen eta bestea errespetatzen lagundu behar diegu.

Ez dugu beldurretan eta izuetan soilik oinarritu behar; sexualitate osasuntsu, aske eta baimendutakoaren osotasunaz eta dakarren ongizateaz ere hitz egin behar diegu.

Norbere burua errespetatzen irakatsi behar diegu: nahi ez dena ez egiten, bakoitzak bere heldutasun nahiz desio eritmoari jarraitzen, eta bestea errespetatzen. Harreman sexual eta afektiboaren ardatzak elkar onartzea, askatasuna eta errespetua dira.

La sexualidad humana es una forma de experimentar nuestro placer y el contacto con lo demás. A través de diferentes etapas evolutivas y de los factores educacionales, aprendemos lo que es adecuado o no hacer en cada cultura y cómo vivir las relaciones afectivas.

Educar una sexualidad sana tiene que ver con permitir la naturalidad en el sentir, con una aceptación corporal positiva, con una educación para el manejo del mundo emocional que conlleva, con una información que esclarezca dudas y temores y que elimine prejuicios, con el fomento de roles equitativos entre sexos y con un autoconocimiento paulatino.

Liburu eta helbideak

Gazteentzat

- **Martínez, J. Y Rubio, R.** (1990). La sexualidad a lo claro. Madrid. Popular.
- **Mayle, P.** (1977). ¿Qué me está pasando? Bartzelona. Grijalbo.
- **Urruzola, M.J.** (1991) Aprendiendo a amar desde el aula. Manual para escolares. Bilbao. Maite Canal.

Gurasoentzat

- **Calderone, M.S. y Ramey, J.W.** (1987). Como hablar con tus hijos sobre sexo. Bartzelona. Granica.
- **Cassell, C.** (1988). Con toda sinceridad. Como hablar con los adolescentes de amor y sexualidad. Bartzelona. Grijalbo.
- **López Sánchez, F.** (1993). Para comprender la sexualidad. Iruña. Verbo Divino.

mec.es (behera karga ditzakezun gidak ditu)/ goxoki.com/atseginez.org

GURASOEN GALDERAK



Jose Ramon Fernandez

(Psikologoa, Psikologia konduktualeko kabinetea)
c/ Ramon Maria Lili 2 BERGARA. Tlf: 943765939

1) 7 urteko alaba daukat, eta oraindik panpinekin lo egiten du. Guk nagusia dela esaten diogu, eta panpinarik gabe lo egin beharko lukeela. Hala ere, ez dugu lortzen panpinarik gabe lo egitea. Kezkatzeko modukoa al da?

Lo egiteko orduan topatzen duzuen "arazo" bakarra bere panpinekin lo egin nahi duela bada, ez zaitezte kezkatu. Garrantzitsuena da haurrak dagokion orduan lo hartzea eta lo egiten duenean atsedean hartzea. Kontuan izan, adin guztietako haurrek lo egiteko ohitura hartzeko, onena giro lasaia sortzea eta errutinazko ekintzak egitea dela, betiere euren kalterako ez badira.

Zenbait haurrek ipuinak entzutea edo lo-kantak entzutea dute gustuko. Zure alabak, beriz, bere panpinekin lo egitea atsegin du. Ezagutzen ditut euren panpinekin lo egitea eta lo egin aurretik ipuinak entzutea atsegin duten gaztetxoak. Ez dugu pentsatu behar nagusitxoak diren haurrek halako ohituren beharrik ez dutenik.

Beraz, ez ezazu alaba presionatu panpinarik gabe lo egin dezan, eta ez ezazu beste haur batzuekin alderatu. Saia zaitez zergatia topatzen. Kasu horietan, oro har, haurrak bakarrik sentitzen dira, eta panpina horiei esker seguru eta pozik egoten dira. Ondorioz, errazago hartzen dute lo. Haurarentzako kaltegarria ez den

bitartean (ohera joateko bere ordua atzeratzen badu edo neurritz kanpoko panpina kopuruarekin lo egiten bada, etab.) ez ezazu ohitura hautsi, baliteke ondorioak okerragoak izatea eta. Ikusiko duzu nola zure alabak denborarekin panpinak uzten dituen.

Dena den, bere aitona-amonen, lehengusu-lehengusinen edo lagunen etxera lotara joaten utz diezaiokizu. Horrela ohiturak zer nolako indarra duen ikusi ahal izango duzu, eta lo hartzeko beste era batzuk eza-gutzeko aukera emango diezu.

Laburbilduz, kalterako ez diren bitartean, lo hartzea errazten duen zehinahi ohitura zure alabaren atsedenerako aseguru bikaina da.

2) 8 urteko semea daukat eta bere egunerako zakur bat oparitu diote oraintsu. Zakurra berea dela eta zakurraz bera arduratu behar dela esan diogu. Orain gutxi izan denez, bera da zakurra zaintzeaz arduratzen dena. Baina, nola indartu dezakegu ohitura hori aspertu ez dadin eta zakurra zaintzen jarraitu dezan?

Zorionak, familian kide berria duzue eta! Gaintontzekoek bezala, denbora eta mirespena behar du horrek ere, maskota bat baita. Maskotaren kargu hartzea benetako konpromisoa izango da denontzat. Maskotak haurren garapen fisikoaren nahiz afektiboaren osagai garrantzitsuak

izan daitezke.

Zuen ardurak da haurrari maskotak hartu eta abandonatu ditzakeen jostailuak ez direla irakastea. Era berean, familiako kide berriaren beharrak eta zaintzak irakatsi behar dizkiozue. Tamalez, zenbait gurasok haurraren gutizia ase eta eurek hartzen dituzte ardurak. Gurasoek, haurrak bere gutiziaz ezer jakin nahi ez duela ikusita, zakurra abandonatu eta desagerarazten dute. Animalia bat izateak sortzen duen ardurak sustatzean eta arduragabekeriaren ondorioak erakustean, gure semeak arduratsu eta adeitsu izaten ikasiko du.

Maskota bat etxean sartzen denean, aldaketa anitz gertatzen dira. Gure ohiturak eta ordutegiak bere beharretara egokitu behar ditugu. Lo egiteko txokoa egokitu behar diogu, inoiz ez haurraren logelan. Haurrak, halaber, ez du maskotarekin jostailurik partekatu behar, zakurra infekzio-iturri baita. Hemendik aurrera, gainera, maskota kontuan izan behar duzue oporrak antolatzeke orduan.

Lanak banatzeko orduan, bestalde, kontuan izan behar duzue asmoa haurrak animalia kargu egitea dela. Horretarako gai dela ikusi behar dugu. Guk ikuskatu beharko dugu eta, zenbaitetan, ordezkatu. Haurrak ezinbestean hartu behar du parte, gurasoek animaliak beharrezko dituen zaintza eta lanak planifikatzen dituztenean.

Jardun



Oharra: zure zalantzak erantzunak izatea nahi baduzu, ondoko eran egin dezakezu: Prebentziorako Zerbitzura telefonoz deituta edota E-maila idatzi eta erantzuna hurrengo atalean argitaratuko dugu. • Telf.: 943 77 91 26 • E-maila: aloidi@bergara.net.

Animaliaren jokabidea eta beharrak ezagutu behar ditugu. Gaiari buruzko liburua erabili dezakezue, haurarekin irakurri edo albaitariarengana jo informazio bila.

Familiak zakurrari egunero behar duen ariketa fisikoa eskaintzeko konpromisoa hartu behar du: gutxienez 30 minutuz jolasean aritu, hala pilota jaurtiz nola pasieran. Beharrezkoa da jaten ematea, zaintzea, bainatzea eta egunean behin edo bitan orratzea. Kalera ere atera behar da, egunean gutxienez lautan. Kontuan izan, halaber, maskota bat izatean sortzen diren gastuak. Oro har, lehenengo urtea izaten da garestiena: txertoak, bizkarroiak hil, botika prebentiboak, janaria eta bestelako gastuak. Urtero botika prebentiboak erostea konpromiso bat da. Familiak, agian, entrenamendu eskoletan izena eman beharko luke, jabeak bere maskota entrenatzen ikasi dezan.

Haurrak animalia zaintzen jarraitu dezan, egin ezazue hitzarmen bat denon artean. Azken horren bidez, haurrak berak bakarrik ezinbestean egin beharko dituen lanak, haurrak zuen laguntzaz egingo dituen lanak eta gurasoek egingo dituztenak ezarriko dira. Eginbeharrak egoki eta bakoitzaren aukeren arabera banatzea da helburua. Denbora pasata, zuen semeak animalia kargu hartzen ez badu, berarekin hitz egin beharko duzue aipatu jokabidearen zergatia jakiteko. Eskolako lanak denborarik uzten ez diotela ikusten baduzue, animaliarekiko bere ardurak murriztuko dituzue. Animaliarekin edo familiako kideren batekin zerbait gertatu bazaio, gatazka konponduko duzue. Alferkeriagatik egiten badu, behin eta berriz zakurra nahi zuela esaten ibili zela gogoratu diozue, baita zakurra ikustean hartu zuen poza ere. Era berean, bere eginbeharren kargu egiteko konbentzitzen saiatuko zarete. Hitzarmena gogora ekarrita ere erre-akzionatzen ez badu, zuek animalia-aren gaineko ardura guztia hartu dezakezue edo, azken aukera moduan, eta haurarekin hitz eginez, animalia-arentzako beste etxe bat bilatu, non ondo zainduko duten.

3) 7 urteko semea daukat eta egun osoa ematen du Game boyan jolasten. Jolasten dagoen bitartean, ez die beste gauzei jaramonik egiten, autista balitz bezala. Gauza askorekin egin dut proba: Game boya ezkutatu, jolasteko ordu zehatzak jarri... Dena alferrik. Zer egin dezakegu?

Bideojokoak haur eta nerabeen artean zabalduen dagoen jarduera ludikoa dira, baina makinak ezin dira haurraren lagunik onenak izan. Hala bada, adi egon behar dugu eta bideojokoak eskuratzeko eta erabiltzeko duen joera kontrolatu. Erabiltzeko modua (bakarka, taldean) eta subjektua nolako lagunkoia den kontuan hartuta, sozializatzeko modu bat izan daitezke. Hala eta guztiz ere, bideojokotan aritzeko bidea libre utziz gero, baliteke pertsonalitate arazoak eta besteekin erlazionatzeko zailtasunak dituzten zenbait pertsonen isolamendurako joera areagotzea (gauza bera gertatzen da liburuekin eta telebistarekin). Bideojokoa atsegingarria bada (tentsioak gainetik kentzen baditu, auto-estimua indartzen badu...) eta pozik egoteko modu gutxi badugu, nolabaiteko menpekotasuna sor dezake, noski. Argi dagoena da mintzagai dugun jarduera ludikoak denbora asko behar duela. Horrek neurritz kanpo erabiltzera bultzatu gaitzake, eta gehiegikeria hori menpekotasunarekin nahastu daitezke.

Bestalde, bideojokoa erosi ondoko egunetan erabiltzen da gehien. Hasierako egun horiek igarota, jokalaria neurri normal batean aritzen da jolasean. Jokalariak bideojokoaren ganako interesa izango du berarentzako zerbait berria izan eta bere gaitasunentzako erronka den bitartean. Zirkunstantzia hori ematen den bitartean, neurritz kanpo erabili dezake. Nerabeak dira bideojokoenganako "menpekotasun" bitxi honen errealitatea ondoen azaltzen dutenak. Nerabe batek hauxe erantzun zigun asteburuan lagunen batekin batuko al zen galdetu genionean: "Bai zera, bideojoko berri bat utzi diote eta bizi-tua dago...!". Gazteak esan nahi zuena zen bere lagunari joko berri bat opari-

tu ziotela eta uste zuela hari katigatua egongo zela asteburu osoan.

Hala eta guztiz ere, gehienetan menpekotasuna ematen ez bada ere, produktu hauen erakargarritasunak eta katigatzeko gaitasunak neurritz kanpo erabiltzera bultzatu dezakete erraz asko, lehendabiziko asteetan batez ere (bideojoko berri baten erakargarritasunaren aurrean amore ematen duenean). Gehiegi aritzen bada, inguruarenganako interesa galdu dezake, neka daiteke, nerbio sistema akitu eta desorekatu ahal zaizkio. Ondorioz, "depresioak, antsietatea, tentsioa eta agresibitatea" agertu daitezke.

Kasu horietan, neurrian erabiltzea lortu behar dugu, aisialdirako beste aukera batzuk bilatu behar dizkiogu eta beste haurarekin harremanetan egotea sustatu behar dugu. Horretarako bideojokoan aritzeko denbora mugatu behar zaio. Bi ordu baino gutxiago aritu beharko litzateke. Kezkatzeko modukoa da hiru orduz aritzen bada, izan ere, hiru eta sei ordu artean bideojokoan arituko balitz, eta egungo eskola ordutegiak kontuan izanda, ez bailuke denborarik izango atsegingarriak diren beste jarduerak batzuk egiteko: ikasi, irakurri, kirola egin, lagunekin egon... Biziki garrantzitsua da hori betetzen dela egiaztatzea. Eginkizun batzuk hitzartu behar ditugu aurrez berarekin (etxeko lanak egin, etxean esku bat bota), horiek beteta jolasteko denbora irabazi dezake, eta bere denbora irabazi arte ez diogu jolasten utzi behar. Era berean, bere pribilegioak neurritz kanpo erabiltzeak izango dituen ondorio latzak esan behar dizkiogu, alegia, bideojokoa zenbat denboraz ezin izango duen erabili zehaztu behar diogu. Bere jokabidea aztertuz haurrari laguntza eskaini ahal izango diozue eta gehiegizko tentsioaren balizko sintomak antzemango dituzue. Bideojokoaren erabilerak eragin zuzena badu haurraren egunero-ko bizitzan eta ondo pasatzeko jolas-ten ez badu, baizik eta gaizki pasatzeko, arazo larri baten aurrean gaude, eta mintzagai ditugun jokabideetan aditua den espezialistarengana jo beharko zenukete.



Olatz Zubia Arana
Psikologo eta psikoterapeuta

FAMILIAREN GARRANTZIA NERABEZAROAN ERE

Nerabezaroa, aldaketen garaia dela esan daiteke. Aldaketa hauek, alde batetik, nerabearengan ematen dira eta bestetik, familiaren antolaketan eta senideen arteko harremanetan eragin zuzena daukate. Etapa honetan, beraz, belaunaldiaren arteko talka izugarria gertatzen da sarri.

Nerabea, agurtu berri duen haurtzaroaren eta ailegatzearen dagoen heldutasunaren arteko eremu nahasian aurkitzen da. Bizitzaren tarte horretan, bizitzak berak ezartzen dizkion eronkei aurre egiten ikasi behar du. Sentitzeko modu ezberdinak deskubritzen eta tendentzia instintibo berriak bizitzen hasten da, baina oraindik ez dauzka hauek maneiatzeko baliabide egokirik, izan ere, arrazoitzeko edota egoerei heldutasunez erantzuteko gaitasuna ez baitauka guztiz garaturik. Aldaketak dimentsio biologiko, psikologiko eta sozialean bizi ditu nerabeak eta eboluzio honek, munduan bere lekua bilatzera eta bere pertsonalitatea definitzera bultzatzen du. Bide horretan, nerabeak gauza berriak probatzeko, muturreko sententzioak esperimentatzeko eta arriskatzeko nahia izaten du eta ondorioz, gehienetan, helduek ez dituzte bere jokabideak ulertzen (eta ez du beren oniritzirik edo errekonozimendurik jasotzen).

Familiaren garrantzia

Beharbada, "nerabezaroaz" baino, "nerabezaroetat" hitz egin beharko genuke. Izan ere, nerabe beste nerabezaro baitaude; norberak bere zirkunstantzietatik abiatuta bizi du eta. Zirkunstantzia hauetan, familia, sozializazioaren eredu izango den lehen marko erreferentziala da eta beraz, erlazio-gune honek, gartzan joango den izaerarengan izugarritzko eragina izango du. Sozializazioaren eredu izatearen funtzio hau dela eta, familia, gerora nerabe izango denaren identitate, auto-kontzeptu eta auto-estimaren oinarria izango da. Hala ere, nerabearen ezaugarri hauek, bizitzako

esperientzi eta harremanekin osatzen eta itxura hartzen joango dira eta urteak aurrera doazen heinean, ingurukoek gero eta eragin handiagoa izango dute. Beraz, familiak haurraren heziketan joera garbi bat markatu arren, ezin du nerabearen ekintzen erantzule zuzena izan.

Nerabeen gurasoek zer egin dezakete?

Hainbeste egoera berriren aurrean aurkitzen garen garai honetan, zaila izaten da iparra non dagoen argi edukitzea beti. Badira, halere, nerabezaroarekin bat datorren harremanen itxurazko desoreka horri, era egokiagoan erantzuten lagun diezaguketen hainbat neurri:

- **Ezagutza;** garrantzitsua da gurasoek nerabezaroaren inguruko informazio zehatza izatea. Nerabearengan eman daitezkeen jarrera eta aldaketak ulertzen dituzten gurasoek (garapen fisiko eta psikologikoa, sineskerak, jarrerak, baloreak, etab.) modu egokiagoan aurre egin ahal izango diote momentuko beharrei eta, aldi berean, familiarteko harremanak hobetzeko pausuak eman ahal izango dituzte.

- **Komunikazioa;** etxeko giro egokia izateak, guraso eta seme-alaben arteko komunikazio bidirekzionala errazten du. Hartu-eman honek, nerabea bizitzaren trantzeen aurrean babestuago egotea ahalbidetzen du, izan ere, aski frogatuta dago, familiako kideen arteko harreman zabal eta zintzoa izatea errazten duen komunikazioaren aldeko apostua egiten duten familietako nerabeek, errazago jotzen dutela gurasoengana arazo baten aurrean aurkitzen direnean eta, aldi berean, egoera honetan sor daitezkeen gatazkakortasun maila txikiagoa izaten dela.

- **Autonomia eta auto-estimua;** auto-estimua altua izatea, jokaera arriskuetsuen eta sustantzien kontsumo eta gehiegikerien aurrean faktore babestailea da. Auto-estimua altua daukan nerabeak, gaitasun handiagoa izaten du erabakiak bere kabuz hartzeko eta inguruko edo lagunen presioari aurre egiteko. Lehen aipatu bezala, familiak puntu honetan eragin handia dauka eta beti izango du bide hau joratu eta gehiago lantzeko aukera.

- **Unitate bat sortu;** oso garrantzitsua da gurasoek adostasunez jokatzea

Internet





Jardun

beren seme-alaben heziketan. Hartzen dituzten erabakiak eta aurrera eramaten dituzten jokabideak, lehenagotik adostuak izatea eta bata besteari laguntzea ezinbestekoa da. Era honetan, gurasoek sortzen duten unitateak indarra izango du eta hau haustea zaila izango da. Unitate hori sortzen ez bada, ordea, erraza da nerabearentzat ahultasun puntu hori aprobetxatuz bere gurasoak maneiatzea eta horietako batekin bat egitea bestearen aurka jartzeko, ondorio kaltegarriak sorraraziz.

- **Arauek;** etxeko arauak argi eta garbi uztea ezinbestekoa da. Arau hauek gurasoek ezarriko dituzte, nahiz eta horietariko askok guztien aprobazioa behar izan. Ahal den guztietan, negoziazioak izan behar du ardatz nagusia arauak ezartzeko orduan eta nerabea heltzen eta bere buruaren jabe den heinean, arau hauek gero eta arrazionalagoak izango dira.

- **Mezuak;** mezu garbiak ematen ditugunean, konfiantzako oinarri bat sortzen ari gara, jokabide egoikiari bideak zabaltzen dizkiogu eta familiako estres maila jaitea errazten dugu aldi berean.

- **Informazioa eskaini;** Zalantza beteriko egoeren aurrean aurkitzen da maiz nerabea garai hauetan eta orregatik garrantzitsua da, nerabeak, egoera horien aurrean maneiatzen lagunduko dion informazioa jasotzea gurasoen eskutik. Garrantzitsua da informazio hau, nerabearen bizitzan azaltzen joan daitezkeen egoeren ingurukoa izatea, drogak eta sexualitatea besteak beste.

- **Drogen kasuan esaterako,** gurasoen uste eta jokaerak datu objektibo-

etan oinarrituak izan daitezzen, sustantzien inguruko informazio egoki bat izatea beharrezkoa da. Kontsumi daitezkeen sustantzien inguruko informazio zehatza izaterakoan, gurasoek gai hauen inguruan beren seme-alaba nerabeekin hitz egin dezakete eta, era berean, hauek izan ditzaketen zalantzei erantzun egoki bat eman.

- **Sexualitatearen gaia,** txikitatik, naturaltasun osoz landu beharreko zerbait da. Informazioa modu zuzen, ulerkor eta zintzoan eskaintzean, haurriari gai honen inguruko jarrera positibo bat transmititzen diogu eta nerabeak ez du inongo erreparorik izango aurrerantzean bere zalantzak etxean aurkezteko. Jakinaren gainean izango da beraz, sexu harremanak segurtasunez bizitzeko hartu beharreko neurrietaz eta neurri hauek ez hartzearen ondorio kaltegarrietaz.

Gurasoen beste egin beharreko bat, nerabeen aholku, sinpatia eta erosotasun iturri izatea da. Nerabeek gurasoengana joko dute, baldin eta hauen aldetik ulerkortasuna eta konfiantza jasoko dutela badakite. Nerabeek gurasoen erantzun hau aurreikusten ez badu, familia kanpoan bilatuko du momentu horretan behar duen babes eta aholkua, eta bide horretan, familiarengandik urruntzen joango da.

Aipatutako guztia une oro gogoan edukitzea ez da lan erraza, batez ere egoerak bere mende hartuak gaituela sentitzen dugun horietan. Guzti honen gainera, ordea, aldaketek dakarten aberastasunari eman beharko genioke garrantzia, garai honetan nerabeak bere buruaren bilakaeran eta deskubrimenduan egiten baitu lan.

La adolescencia es una etapa de muchos cambios tanto en el adolescente como en la organización y relaciones familiares. El adolescente empieza a comportarse y a sentirse de manera diferente, quiere más autonomía e independencia, siente ganas de experimentar nuevas sensaciones y quiere encontrar su lugar en el mundo. Los padres en cambio, sienten cómo su hijo/a va creciendo y cambiando en su manera de pensar, de comportarse, de comunicarse e incluso de divertirse. Los padres quieren mantener control sobre los adolescentes y les resulta muy difícil cambiar los métodos de disciplina conforme los niños maduran. Pero a pesar de los cambios y choques que se puedan ocasionar, seguir una serie de pautas puede ayudar a superar este período con éxito. Uno de los mayores retos para los padres es mantener abiertas las vías de comunicación y suministrar una base segura a los hijos/as. No cabe duda de que es un camino difícil, complicado y difuso, que requiere la comprensión y el apoyo de madres, padres y familiares mayores. A pesar de todo, es importante tener presente que durante la adolescencia, los adolescentes aprenden a ser su propia persona y a tomar decisiones ellos solos y que esta es una tarea tan importante para su futuro como adulto, como complicado y hay que respetar su forma de afrontar los retos de esta edad y comprender su complejidad.

aurrera begira

Gure semeak/alabak euskaraz berba egiteko zailtasunak ditu; zer egin dezakegu laguntzeko?



JARDUN euskara elkarteak
Ion Unanimo

Hizkuntza bat ikasteko orduan hainbat aldagaik eragiten dute (motibazioa, ingurunea, erabilera...) eta horiek aldeko badira hizkuntza errazago eta lehenago ikasten da. Gure kasuan euskaraz dihardugu eta baditu bai ezaugarri berezi batzuk. Beste hizkuntzaekin zerkusirik ez duenez, ama hizkuntza erdara duten ume eta gazteak zailtasun ugari izaten dituzte. Zailtasun horiei aurre egin behar zaie, izan ere, legeak esaten duenez, derrigorrezko hezkuntza bukatzean lortua behar dute hizkuntza gaitasuna EAEko bi hizkuntza ofizialetan. Hori dela eta, euskara maila apala dutenentzako euskara indargarriak (errefortzuak) bideratzen ditu Jardun euskara elkarteak.

Euskara lantzeko saioak eskola orduetatik kanpo

Orokorrean, indargarrietan euskarazko gizarte sarea ez duten umeak egon ohi dira. Horrela, euskararen presentzia euren egunerokotasunaren zati handi batean ziurtatuta gelditzen da ikasturtean zehar, ikastetxeko zein eskolaz kanpoko jarduerekin. Oporrak heltzen direnean, berriz, kontua erabat aldatzen da. Oporrak ingurune guztiz erdaldunean pasatzen dituzten umeak asko dira eta arazoak izaten dituzte ikasturtea normaltasunez hasteko. Behar horren aurrean, Jardun euskara elkarteak, Udalaren laguntzarekin, ANTXINTXIKA izeneko udalekua antolatzen du irail hasieran. Bertan, aipatu berri ditugun umeek gain, euskara ondo menperatzen duten umeak ere izaten dira eta euskararen erabilera ziurtatu egiten da.

Ikasturtean zehar, berriz, Jardunek — Udaleko Euskara Zerbitzuaren eta ikastetxeen laguntzarekin— beharra

duten umeei zuzendutako euskara indargarriak eskaintzen ditu: astean bizpahiru orduz, helburu zehatz batzuekin, herriko ikastetxeetako ikasleak elkartu eta ondo pasatzeaz gain, euskarari buruzko edukiak lantzen dituzte. Edadeka banatuta, 5-8 umeko taldeak osatzen dira. Funtzio komunikatiboa hartzen du pisurik handiena; horrela, helburu nagusia umeek euskarazko jarduna lantzea da.

Eta kanpotik etorri berri direnekin zer?

Herrian ume etorkinak ere gero eta gehiago dira. Beste hizkuntza bat ikasi eta erabiltzeko hazi dira eta geurera etortzean, euskararekin topo egiten dute. Topaketa hau ahalik eta modurik egokienean bideratzeko, ikastetxeetan ikasten dutena alde batera utzi gabe, irakaskuntza ludiko eta dibertigarri bidez euskara ikasteko aukera daukate. Euskara ikasteko lehen urratsa da hori, ondoren ohizko euskara indargarrietara edo beste ekin batzuetara bideratzen baitira ume hauek. Izan ere, euren bizitzako zen-

bat eta esparru gehiago lotu euskararekin, orduan eta urrunago joango da euskararen erabilera maila.

Gazte etorkinen kasua erabat desberdina da. 14 urterekin lehenetsunak oso dibertsifikatuak egon ohi dira. Bertako gazteengan ere euskararen erabilaren jaitsiera nabaria ikusten da eta gaztelania modako hizkuntza bihurtzen da. Beraz, gaztelania menperatzen duten gazteei euskara irakastea lan nekeza bada ere, eskola orduetatik kanpo eskaintzen dizkiegun saio bereziekin, euren komunikatzeko gaitasuna hobetzen ahalegintzen gara.

Bukatzeke, bi kontu aipatu nahi genituzke. Batek, kanpotik etorritako askok euskaraz ondo moldatzeko gaitasuna lortzen dihardute; LAGUNDU DIEZAIEGUN EUSKALDUNTZEN LEHEN HITZA EUSKARAZ ESANAZ. Bestetik, zuen seme-alabek euskara maila hobetzea nahi baduzue, ez izan zalantzarik eta etor zaitezte Udaleko Euskara Zerbitzura edo Jardun euskara elkartera (Kultur Etxean), proiektu horien gaineko informazio gehiago jasotzera.

Jardun



aurrera begira